



187

Uskara ahora

Etxabarrengo Uskara Taldeak sakabanaturik zeuden Aezkoa, Erroibar eta Luzaideko hainbat ipuin, liburu bakarrean kaleratu ditu orain hilabete gutxi "Supazterreko eleak" izenburupean.

Duela gutxi arte etxe guzietan kontaktzen ziren ipuin hauek desagertzeaz dagoen kultura aberats baten adierazgarri dira, Etxabarrengo Elkarrekin beraz galdu baino lehen berreskuratu nahi izan ditu.

Ahozko komunikazioa asko aldatu da. Ipuin hauetan agertzen diren errealitateak eta gaur egungo arraz ezberdina da. Ipuin hauek jazo zireneko urteetan aezkera eta inguruko eskualdetako uskara bizirik zegoen, gaur egun aldiz hilzorian daude. Denon lana edo betebeharra izan beharko luke zaharren eleak berreskuratzea. Baina aldi berean gaurko haur, gazte eta helduen betebeharra ere, uskaraz elekatzea da.

Lehen ez bezala, komunikabideen garaian bizi gara, mundu bat sortzeaz gain, hizkuntza nagusiak inposatzen dituzte, uskararen kalterako. Telebista, egunkari eta interneteko amaraunean uskarak bere leku propioa sortzea behar-beharrezkoa du. Beraz lagunok uskara ahora.